

**Sendotu egin ditu bere eredu komertziala eta lehiakortasuna****EROSKI ARI DA BERRITZEN BERE FRANKIZIA SAREA; BI URTEAN  
HIRU MILIOI EUROKO INBERTSIOA EGIN DU HORRETARAKO**

- **55 denda berritu ditu kooperatibak, haien eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta erosketa esperientzia optimizatzeko; horretaz gainera, eredu komertzialaren berritasunak txertatu ditu.**
- **Inbertsioa, frankizia hartzaileekin batera egin duena, EROSKIren zein Capraboren dendetan hedatu dute.**
- **Planak jarraipena izango du 2026an, beste 20-25 denda birmoldatzeko asmoa baitu.**

**Elorrio, 2026ko apirilaren 15a.** - [EROSKI](#)k eta haren frankizia sareak hiru milioi euro inbertitu dituzte bi urte honetan 55 saltoki modernizatzeko, eredu komertziala eboluzionatzeko estrategiaren harira. Inbertsio osoaren helburua da denda formatuaren eraginkortasuna handitzea, hurbiltasunean irabaztea eta kontsumitzaileen behar berrietara egokitzea, bai eta frankizia sarearen lehiakortasuna hobetzea ere lurraldez lurralde.

Eraldaketen helburu nagusia izan da dendak egokitzea EROSKI City autozerbitzuaren eredura, hori baita garapenaren ardatza kooperatibaren frankizia sarean. Prozesu hori taldearen marka guztietan zabaldu da –EROSKI eta Caprabo– eta, hala, sare osoaren lehiakortasuna sendotu da, konpainiaren eredu komertzialik berrienaren estandarrekin lerrokatu baita.

Egindako hobekuntzekin goitik behera eguneratu dituzte espazio komertzialak: denden irudia berritu dute, saltokiaren komunikazioa hobetu eta eredu komertzial berriaren elementuak txertatu, hala nola opilen eta pisurakoen atalak. Aldi berean, saltokietako askotan salmenta aretoko altzariak berritu dira, bai eta hozteko muralak eta zoruak ere; horrela, hobeto antola daiteke espazioa eta erosketa esperientzia erosoagoa bihurtu.

Eredu honek hurbileko denden kontzeptua betetzen du, eta erosketa arina eta osoa eskaintzen du, garrantzi berezia hartzen dutelarik produktu freskoek, marka propioak eta ingurunera egokitutako sortak.

Horretaz gainera, prozesu honetan, bi dendak espezifikoki eboluzionatu dute Aliprox eredutik EROSKI City eredura, eta, hala, konpainiaren eredurik gaurkotuenaren zabalpena sendotu dute frankizia sarean.

**Eraginkortasun energetikoa eta modernizazio planaren jarraipena**

---

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko  
zuzendaria****Patricia Martín Sanchidrián****Tel: 946 211 214** [comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**INCÓGNITO – Prentsa bulegoa**  
**Silvia Peralta****Tel: 917 379 950**

Eraginkortasun energetikoa hobetzea izan da ardatz garrantzitsuetako bat berrikuntza prozesu honetan. Dendek LED argiztapenerako sistemak txertatu dituzte. Horiei esker, kontsumo elektrikoa apaldu egingo da, eta jarduerak eragiten dituen emisioak gutxitzen joango dira.

Era berean, makina aretoko ekipoak berritu dira, soluzio eraginkorragoak txertatu, eta gas fluordunen gainean indarrean den araudira egokitu; horrela, saltokien kudeaketa iraunkorragoa izango da.

*"Inbertsio honek erakusten du nolako konpromisoa dugun gure frankizia hartzaileekin gure denda eredua eboluzionatzen jarraitzeko eta bezeroen beharrei gero eta gehiago egokitutako proposamena eskaintzeko. Ezinbestekoa da sarea modernitzatea eta saltokiak etengabe hobetzen joatea, horrek indartuko baitu gure frankizia ereduaren lehiakortasuna",* azpimarratu du **Alberto Cañasek, EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak**.

EROSKIren asmoa da ildo horretan jarraitzea 2026an ere, beste 20-25 denda berrituta, eta EROSKI City eredua frankizia sarean hedatzen joatea.

#### **EROSKIri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.